

BASES REGULADORAS DEL PROCESO DE SELECCIÓN PARA LA CONTRATACIÓN TEMPORAL DE UN/A DINAMIZADOR/A DE LOS PROYECTOS UDAN EUSKARAZ Y BIBLIOPISCINA PARA EL AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA EN EL AÑO 2018

El Ayuntamiento de Orduña contratará una persona para dinamizar los proyectos Udan Euskaraz y Bibliopiszina 2018. Será imprescindible para presentar candidatura poseer el Título de Director/a de Tiempo Libre o estudios similares y el EGA o título equivalente. En euskara figura la información desarrollada:

Urduñako Udalak koordinatzaile bat kontratatuko du 2018ko Udan Euskaraz eta Bibliopiszina proiektuak dinamizatzeko, lanaldi osoan. Kontratazioa Udalhitz hitzarmenaren arabera burutuko da, aldi baterako udal langilea izango delarik. Lan kontratua ekainaren 18tik uztailaren 30era izango da (uztailan goizez eta arratsaldean).

Hautagaitza aurkezteko epea eta lekua:

2018ko maiatzaren 28tik ekainaren 11 arte, Urduñako Udal Bulegoetan, Kale Zaharra 2, astelehenetik ostiralera 9:30etatik 13:30etara (legezkoak diren aurkezpen beste moduak ere onartuko dira, beti ere hautagaitzak Udal Bulegoetara ekainaren 11ko 13:30ak baino lehenago heltzen badira)

Koordinatzailearen funtzioak:

1. Uztailan zehar garatuko diren Urduñako Udalaren Udan Euskaraz (udalekuak goizez) eta Bibliopiszina (arratsaldean) proiektuak dinamizatu;
2. Bi proiektuen diseinuan parte hartu udal teknikariek batera;
3. Proiektuak garatzeko beharrezko materialaren erosketa (hamaiketakoak, tailerren materiala, ...) eta beharrezko kontratazioak (asegurua, autobusak, ...) egin;
4. Beharrak eta zailtasunak aurreikusi eta hartu beharreko neurriak prestatu eta aplikatu;
5. Begirale taldearen hautaketan parte hartu udal teknikari eta ordezkariekin batera;
6. Begiraleei proiektua azaldu eta garatzen dela ziurtatu;
7. Ume eta gurasoen aurrean Udalaren ordezkaria izango da;
8. Partaideen zerrendak egin eta taldeak antolatu;
9. Sor daitezkeen arazoan aurrean erantzun egokiak bilatu udal teknikari eta ordezkariekin batu ostean;
10. Proiektuen ebaluazio txostena burutu.

Hautagaitzarako aurkeztu beharreko agiriak (kopiak aurkeztu beharko dira):



1. Eskaera orria guztiz beteta eta esaldi hau gehitu: "Koordinatzaile lanposturako hautagaitza 2018."
2. NANaren kopia
3. Astialdi Zuzendari Agiria (edo honekin erlazio zuzena izan dezaketen ikasketen agiriak);
4. EGA edo Euskara agiri baliokidea;
5. Udalekuak edo antzeko proiektuak dinamizatzen behintzat 6 hilabeteko lan esperientzia egiaztatzeko nahi beste agiri (lan kontratuak, enpresen ziurtagiriak, lan-bizitzaren ziurtagiria, ...);
6. Lanarekin zerikusi zuzena izan dezakeen formazio osagarriaren agiriak (informatikakoak, berdintasunarekin lotutakoak, talde dinamizazio ikastaroak, arazoaren ebazpenarekin lotutakoak, ekintza kooperatiboei eta ez lehiakorrei buruzko ikastaroak, umeen garapenarekin lotutakoak, ...);
7. Aurkezpen gutuna (DinA4 tamainan aurpegi bakarrean, Arial 12 eta lerroen artean tarte bikoitza utziz).

Urduña, 2018ko maiatzaren 25a

ALKATEA